

/ Nabarmentzekoak

- > 2024-2030 Plan Estrategikoa eta Marketin Turistikoko Plana egiteko zerbitzua (2. or.)
- > "Presunto", ezkutuko indarkeriari buruzko obra "Getxo Eszena Irekia" deialdian hautatutakoa (3. or.)
- > "Ramiro Pinilla" Eleberrri Laburren Lehiaketaren zortzigarren ediziorako deialdia ireki da (4. or.)



Paula Markina:
"Hockeya nire pasioa da eta selekzioan zein taldean familia bat bagina bezala sentitzen gara"
(4. orr)

Zinema-zikloak. Kultur Etxearen zinema zikloak hasiko dira: Zinekluba (azaroaren 1ean, ostirala), Zinematxiki eta Cine Infantil (azaroaren 3an, igandea) eta Zinemabarri (azaroaren 7an, osteguna).

Kontzertua. Azaroaren 8an, ostirala, 21:00etan, Muxikebarrin, "Ginebras" taldea. 25€.

**A-
GENDA**

Obrak 2025eko udaberrian hasia aurreikusten da

Romoko haurreskolak 612.000 euroko dirulaguntza jaso du Next Generation funtsen kontura

Getxoko bigarren haurreskola, Romo ikastetxe publikoaren eraikin hexagonalean kokatuko dena, eraikitzeko obrek 612.000 euroko dirulaguntza jaso dute Eusko Jaurlaritzaren eskutik, Europar Batasuneko Next Generation funtsen kontura. Funts horiek obraren gastuen zati bat estaliko dute, 900.000 eurokoa, gutxi gorabehera. Obrak 2025eko udaberrian hasia eta abenduan amaitzea aurreikusten da. Plaza berriak 2026tik aurrera egongo dira eskuagarri.



siesta-eremuak, higiene-eremuak eta biberonia bat izango ditu. Kanpoaldean, espazio propio bat izango du, behar bezala mugatuta eta sarbide independentea izango duena. Patio berezi bat izango du hegoaldera begira, baita orgatxoak aparkatzeko gune bat ere. Eraikinak igogailua izango du, eta irisgarritasuna bermatzeko oztopo arkitektoniko guztiak kenduko dira. Gainera, eraikina energetikoki eraginkorra izango da, kalifikazio energetiko gorena lortuko du eta "kontsumo energetiko ia nulukoa" bihurtuko da, airea girotzeko lurzoru erradiatzailearekin konbinatutako aerotermia sistema bati esker".

Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak adierazi duenez, "dirulaguntzak inbertsio honen zati garrantzitsu bat estaltzen lagunduko du, 2024-2027 agintaldirako gobernu-talde gisa finkatu ditugun helburuen barruan kokatzen dena, herritarren eskaera bati erantzunez. Haurreskola berri honek Getxoko familietan eragin

positiboa izatea nahi dugu, familia eta lana bateragarri egitea erraztuz".

Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak adierazi duenez, "Romoko haurreskolan 34 plaza eskaintzea aurreikusten da, Eusko Jaurlaritzak ezarritako lehentasunari jarraituz: 0 eta 1 urte bitarteko haurrentzat 8 plaza dituen gela bat, eta 1 eta 2 urte bitarteko umeentzat bi gela, bakoitzean 13 plaza izanik. Era berean, erabilera anitzeko gela bat, jangela,

Zentro berri horrek, Algortakoak bezala, Getxoko Udalaren mantentze-lanak eta zaintza izango ditu, eta HAURRESKOLAK Partzuergoak kudeatuko du, bi erakundeek sinatutako hitzarmenaren bidez.



Disney Txiki Kanta ikuskizunerako sarrerak agortu dira

Lilura (Getxo), Bilbao Musika Gazte, ArteOn (Araba), Kontari-Landarbaso (Gipuzkoa) eta Móndeveus (Girona) abesbatzetako 150 haur eta gaztetik gora igoko dira Muxikebarriko agertokira igande honetan, azaroak 3, 18:00etan, Disney Txiki Kanta ikuskizuna eskaintzeko. Moldaketa koralak dituen muntaia da, *Getxo Eszena Irekia* deialdian aukeratua. Bertan, performance bertsoan interpretatuko dituzte, mugimendu eszenikoarekin, koreografiarekin eta jantziekin, Disneyren film enblematikoetako abestiak (El rey león, Coco, La Bella y la Bestia, Frozen, Aladdin, Encanto, La Sirenita...). Sarrerak agortu egin dira.



Emausen denda berri baten inaugurazioa Algortan

Amaia Aguirre alkatea eta Iñigo Urkitza Inguruneko Zerbitzuko zinegotzia izan ziren astelehenean, hilak 28, Emausek Algortako Euskal Herria kaleko 10 zenbakian zabaldu zuen dendaren inaugurazioan, Romokoa ordezkatu duena. Emaus Udalak eskaintzen duen bolumen berrerabilgarrien etxez etxeko bilketa-zerbitzuen enpresa esleipenduna da eta dendan tamaina handiko asko aurki daitezke, berrerabiliak izateko. Inaugurazioan, Rosa Gil Emaus Bizkaiko arduradunarekin batera, beste udal batzuetako ordezkariak eta Garbiker, Berziklatu, Gizatea eta Kooperera erakundeetako ordezkariak izan ziren, besteak beste.



URRIAK 31 OSTEGUNA

Aste korala. 20:00etan, Muxikebarrin, "Bel Canto Choir Vilnius" (Lituania). Sarrera: 3€.

AZAROAK 1 OSTIRALA

Aste korala. 20:00etan, Muxikebarrin, "Suanplu Chorus" (Tailandia). Sarrera: 3€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, El Canijo de Jerez. Sarrera: 25€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Justine Trietaren "Anatomía de una caída" (AJB). 12 urtetik Aurrera. Sarrera: 3,50€.

AZAROAK 2 LARUNBATA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Presunto" (gaztelera) Talita tiene un plan konpiniarekin. Sarrera: 8€.

Kontzertua. 20:00etan, San Nikolas Barikoa parrokiari, Ars Canticum Ensemble abesbatza eta Pedro Guallar (órgano-jotzailea). Sarrera dohainik. Antolatzailea: AMOMA-Merklin Organoaren Lagunen Elkartea.

AZAROAK 3 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Dunia y el eco del tambor" (gaztelera). Sarrera: 2,50€.

Haur zinema. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Robotia" (euskaraz). Sarrera: 2,50€.

Kontzertua. 18:00etan, Muxikebarrin, "Disney Txiki Kanta", Lilura (Getxo), Bilbao Musika Gazte, ArteOn (Araba), Kontari-Landarbaso (Gipuzkoa) eta Móndeveus (Girona) abesbatzekin. Sarrera: 6€.

AZAROAK 5 ASTEARTEA

Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa. Romo Kultur Etxean, 11:00-14:00 eta 17:00-21:00 (igandean 14:00ak arte). Hilaren 10 arte.

Erakusketa. 2024ko Arte Bisualen Deialdia. Algortako Kultur Etxean (Villamonte), David Hoskingen "Un artista generativo". Hitzaldia artista-rekin hilak 16, 11:30ean. Hilaren 25 arte.

Hitzaldia. 19:15ean, Villamonteko Kultur Etxean. "Ecología y dignidad humana. Las mujeres y la transformación social en el Chad", Ayuda MAS entitatearen eskutik. Getxotik Mundura Mundutik Getxora.

AZAROAK 6 ASTEAZKENA

Erakusketa. Bosteko 2024. Romo Kultur Etxean, "Karratu beltz leuna", Maider Aldasoro, Leire Lacunza eta Natalia Suárez artistena. Bisita gidatua

hilaren 14an, 19:00etan (ele bitan).

Performance-a hilaren 22an, Santa Eugenia plazan. Hilaren 24 arte.

Liburu-aurkezpena. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Tierra, amor y vida" poema-liburuaren aurkezpena, Maria José Rodríguez egilearekin.

AZAROAK 7 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Isabel Coixetaren "Nadie quiere la noche" (gaztelera). 12 urtetik aurrera. Sarrera: 3,50€.

Txatxarrak taldearen saioa. 19:30ean, Romo Kultur Etxean. Garazi Basterretxea Bareak gidatuta, testuak sortuko dituzte ikuspegi feministatik, euskaraz. Izen-ematea: 619935541/egizugetxo@gmail.com

AZAROAK 8 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi duten nagusien topaketa. Gaztelera.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Lone Scherfigaren "La contadora de películas" (gaztelera). 12 urtetik Aurrera. Sarrera: 3,50€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, "Ginebras". Sarrera: 25€.

Kontzertua. 20:00etan, Ama Mesedeetako parrokiari, "Xaramela Abesbatza" (Baiona) eta "Coral Ondarreta Abesbatza". Sarrera dohainik.

Kontzertu didaktikoa. 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Congo" (jazza). Sarrera dohainik.

AZAROAK 9 LARUNBATA

Best Getxo Kongresua. Getxoko Emakume Sortzaileen Topaketa. 11:00etan, Muxikebarrin. Sarrera gonbidapenarekin.

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Gotzon Barandiarán. Sarrera: 6€.

Musika eta Dantza ikuskizuna. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Itsasoa laino dago", Soinuak haizean taldearekin. Sarrera: 5€.

Dantza plaza. 19:00etan, Kurutzagane parkean (Zubileta), erromeria udalerriko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

AZAROAK 10 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Zutik" (euskaraz). Sarrera: 2,50€.

Haurrentzako kontzertua. 16:00, 17:15 eta 18:30ean, Muxikebarrin, "Bitels para bebés", La Petite Mamaluga-rekin. 0-3 urte. Sarrera: 6€.

2024-2030 Plan Estrategikoa eta Marketin Turistikoko Plana egiteko zerbitzua

Ekonomia Sustapena Arloko Turismo Unitateak martxan jarri du 2024-2030 aldirako Getxoko Turismo Plan Estrategikoa eta Marketin Turistikoko egiteko zerbitzua.

Plan Estrategikoa egitea diagnostiko sakonerako faseetik hasi da, helmugaren indarguneak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak aztertuz. Ikuspegi parte-hartzailearen bidez, toki-eragileak eta herritarrak inplikatzeko turismotasunak jasagarria eta berritzailea sustatuko duen epe luze ikuspegiaren definizioan. Ondoren, ezarritako helburuak lortzeko estrategia eta ekintza zehatzak diseinatu dira, eta aldian-aldian

monitorizatu eta ebaluatuko dira.

Marketin Plana egiteko prozesua funtsezko lau faseetan garatuko da. Haste-ko, merkatuaren ikerketa sakona egingo da, aukerak eta erronkak identifikatzeko. Ondoren, marketin-estrategia pertsonalizatuak diseinatu dira eta kanal digitaletan eta tradizionalen ekintzak ezarriko dira. Ekintza horien arrakasta neurtzeko, errendimenduen funtsezko adierazleak ezarriko dira eta emaitzen etengabeko jarraipena egingo da.

Bi planen arteko loturari dagokionez, Turismo Plan Estrategikoak sektorea ga-

ratzeko ikuspegi, helburu eta estrategia orokorrak definitzen ditu. Marketin Turistikoko Planak, bestalde, helmuga eta Getxo marka sustatzeko eta merkaturatzeko ekintza zehatzak bihurtzen ditu estrategia horiek.

Hainbat hitzarmen berrituta

Lankidetzaren ikuspegitik garrantzi bereziko proiektuak sustatzen jarraitzeko, Udalak Euskal Fondoa, Getxoko ATFAL Sahararen aldeko eta Zabalketa elkarteen proiektuak bultzatzeko hitzarmenak berritu ditu.

Zehazki, Euskal Fondoak 53.550 euro jasoko ditu Nikaraguako Tipitapan auzoko euri-drainatze proiektuaren zati baterako, bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin. 37.800 euro izango dira ATFALentzat, Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetara behar handiko produktuak eraman dituen Karabanarako, Oporrak Bakean ekimenerako eta kanpamenduetako hezkuntza bereziko zentro-rako. Azkenik, Zabalketak 26.250 euro izango ditu, SolidaridUP proiektua sustatzeko. Horren bidez, udalerrian elkartasunaren balioa indartzen da, merkatarik, GGKEk eta hirugarren sektoreko elkarrekin osatutako sare baten bidez.

"Basqueguna" Biscaytik-en

Datorren ostiralean, azaroak 8, Basqueguna 2024 jardunaldia egingo da Biscaytik-en egoitzan, Zugatzarte Etorbidean, Seriesland eduki digitalen nazioarteko azoka eta jaialdiaren baitan. Udalak Dinamizatzeko Laguntzen barruan diruz lagundutako ekimenetako bat da (2. ildo). Juanma González Sustapen Ekonomikoko eta Getxolango zinegotziak hartuko du parte jardunaldian, eta Horizonte digital berriak ikus-entzunezkoen sektorean izango da gaia. Info: <https://labur.eus/88MPq>



Etzerik gabeko pertsonen gaueko zenbaketa

72 bat pertsona boluntariok (50 emakume eta 22 gizon), 10 profesionalek lagunduta, parte hartu zuten aterpetxetan edo gaueko harrera gunetan igarotzen duten etzerik gabeko pertsonen zenbaketa, urriaren 23tik 24ra arteko gauean. Ekimen horretan Getxok parte hartu duen seigarren aldian izan da aurtengoa, Euskadiko 30 udalerritan aldi berean egin zena. Pertsona horiek Algortan Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziarekin batu ondoren, udalerriko kaleetatik hasi ziren ibilbidea egiten, etzerik gabeko pertsonen kopuruari, ezaugarriei eta premiei buruzko ezagutza hobetze aldera.



Euskaraldiaren laugarren edizioa aktibatze argazki kolektiboa

Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzea sustatu nahi duen ariketa sozialaren hurrengo edizioa aktibatze argazki kolektibo bat egin zen pasa den ostegunean, hilaren 24an, Algortako San Nikolas plazan. Ahobizi, Belarriprest eta Irribizi figuren sinboloekin, 250 bat getxotar batu ziren argazkian, erakutsiz Getxo prestatzen ari dela ekimenean berriro parte hartzeko. Datorren udaberrian, maiatzaren 15etik 25era izango da laugarren edizioa, "Elkar mugituz egingo dugu" lelopean.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioaren hitzordu berria

Azaroaren 5etik 10era, Romo Kultur Etxeak Bigarren Eskuko Liburu Azokaren edizio berri bat hartuko du. Oraingo honetan, Liburutegi Zerbitzuak Garapenerako Lan-kidetzako udal arloarekin elkar-lanean antolatutako ekimenak Taldeka GKEari bideratuko dio diru-bilketa, Bengalurun, Karnataka estatuan (India), "Akankshe-Lortzeko asmoa" proiektua gauzatzeko. Proiektu honek haurrek oinarrizko ikaskuntzari dagokionez dituzten arazo zehatz batzuei heltzea aurreikusten du.

Bost egunetan zehar gai ezberdinetako aleak erosi ahal izango dira. Salgai jarriko diren liburuak, 17.000 baino gehiago, partikularrek liburutegiei egindako dohaintzetatik datoz. Azokaren irekiera ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara da; igandean, hilak 10, goizez bakarrik irekiko da.

"Presunto", ezkutuko indarkeriari buruzko obra "Getxo Eszena Irekia" deialdian hautatutakoa

Larunbat honetan, azaroaren 2an, 20:00etan, Talita tiene un plan ekoiztetxeak Idoia Merodio aktore getxotarrak idatzi eta Olatz Beobidek zuzendutako *Presunto* obra taularatuko du Muxikebarrin. Antzezpenerako sarrerak 8 euroko prezioa du.

Idoia Merodiok berak, Aitor Boro-biak eta Alfonso Diezek interpretatua, *Presunto* ezkutuko indarkeriari buruzko obra da, baina pertsona bakoitzarengan existitzen da. Abokatuen ingurune batean kokatzen da, eta "norberaren defentsan" indarra erabiltze-ari buruzko hausnarketa egitera gonbidatzen du. Eszenografia minimalistaz baliatuz, muntaia honek xake-taula erabiltzen du aita baten barne-borrokaren metafora eta sinbolo gisa, alabari zerbait gertatu zaiola jakin ondoren. Une horretan, arrazionalaren eta animalia-aren arteko muga lausotu egiten da. Testuak justiziari, legeari eta mendekuari buruzko gogoeta egiten du.



Bosteko erakusketa ibiltaria "Karratu Beltz Leuna" espozisioarekin dator

Azaroaren 6tik 24ra bitartean, Bosteko 2024 erakusketa ibiltariaren barruan, *Karratu Beltz Leuna* espozisioa ikusi ahal izango da Romo Kultur Etxean.

Maidar Aldasoro (eskultura eta ikus-entzunezkoa), Leire Lacunza (argi-instalazioa) eta Natalia Suárez (pintura) artisten lanak biltzen ditu, María Goirigolzarri erakus-

ketaren komisarioarekin batera. Erakusketaren osagarri gisa, bisita gidatu bat izango da azaroaren 14an, osteguna, 19:00etan, eta performance bat, Leire Lacunza artistaren eskutik, azaroaren 22an, ostirala, 19:30ean, Santa Eugenia plazan.

Artista sortzailea
Villamonteko Kultur Etxeak Da-

vid Hosking: una artista generativo erakusketa hartuko du azaroaren 5etik 25era, Arte Ederretako hezitzaile adituak sortutako marrazki, koadro eta lan digitalen erakusketa. Larunbatean, hilak 16, 11:30ean, arte sortzailearen mugimenduaren egungo ikuspegiari buruzko hitzaldia eman- go du.



Aurora Velezek bere azken bi poema-liburuak aurkeztu ditu

Lyonen (Frantzia) bizi den Aurora Velez idazle eta kazetari getxotarrak bere bi poema-liburuak aurkeztu ditu Romo Kultur Etxean: *Intramuros* eta *Dos orillas*. Ekitaldian bere konposizio bat errezitatu zuen: "El ahora futuro, el que nos habla por las venas de la noche en una comba de paz, de abandono atento. El ahora futuro, posible por este en los otros tiempos del ahora, ayer traslúcido, espeso de posibles y desdobles. En el futuro ayer, aquel fuera de duda de una infancia plena. En el posible mañana, con un pistilo de pena y otro de esperanza. En este mañana mismo, apabullado de tareas y negadas, de columnas de silencio y de escaleras ardientes. En todos ellos, pero sobre todo en este ahora del tiempo suelto en la melena de las noches, viví, vivo y seguiré velándote".



El Canijo de Jerez Muxikebarrira dator "Ceniza y barro" lanarekin

Marcos del Ojo Barrosoren izen artistikoa den El Canijo de Jerezek kontzertua eskainiko du ostiral honetan, azaroak 1, Muxikebarrin. Bere bosgarren eta azken albumeko kantuak aurkeztuko ditu, *Ceniza y barro*. 21:00etatik aurrera, bere musikaren sustraletara itzuli den abestiak joko ditu. Halaber, denbora-mugarik gabe aterako duen azken lana da, eta, beraz, bira honek agertokietatik aldi baterako agurtuko du. Flamenkoa, gitarra eta kaxoia dira berriz ere protagonista; iskanbila sustraiekin nahasten da eta festan amaitzen da. Horretarako, "urteen eta kontzertuen poderioz familia bihurtu diren" bere Banda Magnetikoarekin elkartu da berriro: Pepe Frias, baxuan; Manuel Cabrales, baterian, eta Pedro Pimentel eta Marcos Munné, gitarra-tan. Sarrera: 25 euro.

Ramiro Pinilla Eleberri Laburren Lehiaketaren zortzigarren ediziorako deialdia ireki da

Kultur Etxeak, bertako Pinillesca taldearekin lankidetzan, *Ramiro Pinilla* Eleberri Laburren Lehiaketaren zortzigarren edizioa jarri du abian. Lehiaketaren helburua Getxoko autore ezagunaren oroimena zaintzea eta literatur sorkuntza bultzatzea da.

Lehiaketa egoitza Espainiako estatuan duten pertsonen zuzenduta dago, nazionalitatea edozein dela ere, eta testuak gaztelaniaz nahiz euskaraz aurkeztu ahal izango dituzte, 80 eta 120 orrialde bitarteko luzerarekin. Lanak aurkezteko epea 2025eko otsailaren 21ean amaituko da, eta datorren urteko abuztuaren bigarren hamabostaldian epaimahaiak erabakia hartu ondoren, sariak irailera lehen hamabostaldian banatuko dira.

Lehiaketak bi sari izango ditu, bakoitza 6.300 eurokoa, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitakoentzat, hurrenez hurren. Gainera, lana argitaratzeko 1.000 euroko laguntza eskainiko da edizio gisa.



Azken edizioan, parte-hartze errekorra izan zen, 263 eleberri aurkeztu baitziren lehiaketara. Irabazleak Joxe Mari Unanue (euskaraz) eta

Diego Sanchez (gaztelaniaz) izan ziren. Informazioa Kultura Getxo eta webgunean <https://getxo-kultura.eus/deialdiak/>

Hezetasuna auzoko jaiak

Datorren asteburuan, azaroak 8, 9 eta 10ean, San Martin jaiak ospatuko dira Algortako Hezetasuna auzoan. Egitaraua ostiralean, hilak 8, hasiko da, 17:00etan, kalejira batekin, buruhandi, txistulariekin... Ondoren diskofesta, txapel jaurtiketa txapelketak eta eskupilota, karakoea eta DJa gaztetxoentzat. 23:00etan, kontzertua Bidean Erromeria taldearekin. Egun honetan, 02:00etatik 03:30etara gaueko autobusa egongo da, ez baitago metro-zerbitzurik.

Larunbat goizean haurrentzako jarduerak (tailerrak, puzgarriak, dibuko lehiaketa...) eta igel txapelketa izango dira. Arratsaldean, auresku eta futbol txapelketak, zumba, dantza plaza, karaokea... eta 22:30ean, kontzertua Erasp eta Modus operandi taldearekin.

Igandean, hilak 10, Villamonte krosa, lapikoko lehiaketa, dantza alardeak eta, arratsaldean, karate erakustaldia, herri kirolak, txokolatada eta Txarri erretzea.

Egitaraua:

<https://labur.eus/H9pX7>

KIROLAK

Hockey Stick Getxo klubeko jokalaria Hego Amerikako *Special Olympics* Latinoamerikako txapelduna izan da Espainiako selekzioarekin

Paula Markina: "Hockeya nire pasioa da eta selekzioan zein taldean familia bat bagina bezala sentitzen gara"

Paula Markina Hockey Stick Getxo klubeko jokalaria Hego Amerikako *Special Olympics*-eko txapeldun geratu da Espainiako selekzioarekin. Hockey plus konbinatuak, adimen urritasuna duten kirolariek osatua, Belgikari irabaztea lortu zuen finalean, Paraguai, Uruguai, Alemania eta Txile menderatu ondoren.

Getxoko klubeko nazioarteko jokalaria emozio handiz bizi izan du Fadurako entrenamenduetara itzultzea: "Poz handia sentitu nuen klubeko taldeek korridore bat eginez hartu nindutenean. Hockeya nire pasioa da, eta selekzioan zein taldean familia bat bagina bezala animatzen eta babesten gaituzte", adierazi du. Markinak plus taldean jokatzear gain, emakumezkoen haur taldearekin ere entrenatzen du, eta bere helburua Txilen ospatuko den hurrengo Hego Amerikako *Special Olympics* txapelketan Espainiako selekzioarekin berriro lehiatzea da.

Jokalaria 20 urte ditu eta Getxoko hockey plus taldeko kide da, 2014an Euskadin aitzindari izan zen proiektu honen hasieratik.

Veronica Grande koordinatzailea oso pozik dago Markinaren eta taldearen bilakaerarekin eta lorpenekin. "Oztopoak hausten joan gara, eta edozein pertsonari eskaintzen dizkiogun aukera berdina eman dizkiogu, kirol bat taldean egi-

teko horrek dakarren guztiarekin: bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, autoestimua eta autonomia pertsonala hobetzea, baita errespetua eta talde-lana bezalako balioak ere. Getxotarra horren guztiaren adibidea da. Lanarekin eta taldearekin kon-

promiso handia duen jokalaria da eta, gainera, ikasteko eta hobetzeko gaitasun handia du", nabarmendu du.

Hockey Stick Getxo klubeko plus taldeak 12 eta 25 urte bitarteko 20 neska eta mutil ditu, eta Faduran entrenatzen du astearte eta larunbatetan, gero eta talde gehiagok parte hartzen duten estatu mailako lehiaketak prestatzeko. Joan den irailaren amaieran, hain zuzen ere, Getxon Espainiako Hockey+ Txapelketa izan zen, eta talde getxotarrak hirugarren postua lortu zuen bigarren kategorian. Gainera, bigarren aldiz jarraian, Fair Play saria jaso zuen, jokalekuan izandako portaera ereduagarriatik.



Belako CDCP garaikurra

Carmen Parra Hertz Klinikaren II. Trofeoa (CDCP) larunbat honetan, azaroak 2, hasiko da Abako uretan. *Estropada*, *Gurutzaldia* eta *J80* motako ontzientzako urteko azken-aurreko probak azaroaren 16an eta abenduaren 7an izango dira.